

**LARRAULGO UDALA**

(GIPUZKOA)

**2020ko EKAINAREN 2an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN  
(TELEMATIKOKI) EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2020ko ekainaren 2an, telematikoki, eguerdiko 16.00 orduetan, Maite Arana Perez Alkate andrearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.


ZINEGOTZIAK:      Maialen Alonso Labandibar  
Vicente Garcia Momblona  
Jesus Maria Tejada Cantero  
Jose Antonio Rodriguez Rodriguez  
Mireia Ruiz Delgado  
Aitor Beistegui Fiallegas

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten diren Udalbatzarretako aktak onestu, hala badagokio/ Aprobación, si procede de las siguientes actas Plenarias:**
  - **2020ko apirilaren 28an egindako ohiko bilkura/ Sesión ordinaria de fecha 28 de abril de 2020.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
- 3. 2019ko Kontu Orokorren behin betiko onspena, hala bada./ Aprobación definitiva de la Cuenta General del Presupuesto del 2019.**
- 4. 2/2019 Kreditu aldaketaren hasierako onspena, hala bada/Aprobación inicial del expediente de modificación de créditos 2/2019.**
- 5. 2020 urterako udal tasen hobari eskaeraren azterketa, hala bada./Estudio de las solicitudes de bonificación de las tasas para el ejercicio 2020.**
- 6. Larraulgo Urbeltz auzoan dagoen haur-parkearen zorua aldatzeko kontratuaren esleipena, hala bada/ Adjudicación, en su caso, del contrato de sustitución del suelo del parque infantil situado en el barrio de Urbeltz de Larraul.**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

7. **Erroitz baltzu mugatuari 2020 urteari dagokion ekarpenaren kitapena onestea, hala bada/ Aprobación de la liquidación presentada por Erroitz baltzu mugatua de la ayuda económica concedida en el ejercicio 2020.**
8. **Lankidetzaz hitzarmenaren onespina, Larraulgo Udala eta Tolomendi artean, Tolosaldeko udalerrien informazio eta komunikazio teknologien dinamizazio eta aholkularitza partekatutako lanaren sustapenerako./ Aprobación del convenio de colaboración entre el Ayuntamiento de Larraul y Tolomendi para la promoción de un trabajo compartido de dinamización y asesoramiento en tecnologías de la información y comunicación de los municipios de Tolosaldea.**
9. **Beste batzuk/Otros.**
10. **Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.**

### **LEHENENGO PUNTUA**

#### **ONDOREN ADIERAZTEN DEN UDALBATZARRETAKO AKTA ONESTU, HALA BADAGOKIO**

- ▣ 2020 urteko apirilaren 28ko Udalbatzaren ohiko bilkurako akta. Irakurri ondoren bertaratuek, Aitor Beistegui Fiallegas zinegotziaren abstentziorekin, ez zuelako parte hartu, gehiengoz onesten dute.

### **BIGARRENGO PUNTUA**

#### **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**


Ondoren, Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 42/2020 tik 59/2020ra Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

### **HIRUGARREN PUNTUA**

#### **2019KO KONTU OROKORRAREN BEHIN BETIKO ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik 2019 ekitaldiko Larraulgo Udaleko Kontu Orokorra 15 lanegunez jende aurrean jarri dela, bere iragarkia Udaleko Iragarki Taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz, edonork aztertu eta egoki zituen alegazioak aurkeztu zitzaizkion.

Ikusirik 2020ko maiatzaren 8an argitaratu dela iragarkia GAOn eta jendaurreko epea ireki dela 2020ko maiatzaren 11tik maiatzaren 29ra bitartean, biak barne, ez delarik bere aurka inolako iradokizun zein erreklamaziorik aurkeztu.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik Udaleko Behin behineko Idazkariak Kontu Orokorrari buruz egin duen txostenean dioena.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez, ondorengo,

### ERABAKITZEN DUTE:

LEHENA.- Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Toki Ogasunen Aurrekontuari buruzkoak, xedatutakoarekin bat etorritz Larraulgo Udaleko 2019 ekitaldiko Kontu Orokorrari behin betiko onespena ematea.

BIGARRENA.- Akordio honen berri Herri Kontuen Euskal Epaitegiari ematea.

### **LAUGARREN PUNTUA**

#### **1/2019 KREDITU ALDAKETAREN HASIERAKO ONESPENA, HALA BADA**

Larraulgo Udal honetako Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.


Eztabaidatu ondoren, Udalbatza honek, aho batez, honako hau

### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

#### **KREDITU GEHIGARRIEN PROPOSAMENA**

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:




## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0000.210.332.10.01 2020	AZPIEGIT.ETA OND.GAST.LIBURUTEGIA	0,00	160,00	160,00
1 0000.210.933.00.01 2020	AZPIEG.ETA ONDAS.GASTUAK: OSTATUA	120,00	150,00	270,00
1 0000.470.439.00.01 2020	ENPRESEI APORTAZIOAK: COVID-19	0,00	5.800,00	5.800,00
1 0000.480.439.00.01 2020	PARTIKULARREI APORTAZIOAK: COVID-19	0,00	3.000,00	3.000,00
1 0000.623.153.30.02 2020	ZERB.FUNTZION. INBERTSI: PARKEAREN KONP	0,00	21.100,00	21.100,00
1 0000.628.332.10.01 2020	LIBURUTEGIRAKO LIBURUAK	500,00	500,00	1.000,00
1 0000.210.163.00.01 2020	AZPIE ETA OND.GAST.KALE ETA BIDE GARB.	2.500,00	1.400,00	3.900,00
<b>GUZTIRA</b>		3.120,00	32.110,00	35.230,00

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
d	1 0000.643.920.00.01 2020	UDAL INBENTARIOA	7.500,00
d	1 0000.226.338.00.06 2020	HERRIKO JAIK	1.300,00
a	2 0000.870.000.00.01 2020	GERAKINAK	22.810,00
d	1 0000.226.231.50.05 2020	BERDINBIDEAN PROGRAMA	500,00
<b>FINANTZAKETA GUZTIRA</b>			<b>32.110,00</b>

**BIGARRENA:** Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

**HIRUGARRENA:** Idazkari-Kontuhartzailearen komunikazioa onestea, non azaltzen den:

“Toki entitate honek, berez, ez ditu betetzen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren arloetan 2020. urterako ezarritako helburuak edota gastu araua.

Hala ere, aurrekontu egonkortasunaren helburua edota gastuaren araua ez betetzearen arrazoia diruzaintza gerakina erabili izana denez, likidazioan egoera hori berretsiko balitz, 1/2013 Foru Arauaren 5.3 artikuluan eta Jarraibidearen 1.1 eta 3. erregeletan ezarritakoari jarraituz, kontuhartzaile honek berariazko txostena egin beharko luke udalbatzarrari jakinaraziko zaiona, eta plan ekonomiko finantzarioa ordezkatuko duena.

Beraz, plan ekonomiko-finantzarioa egiteko obligazioaren ondorioetarako, 2020. urterako helburuak eta gastu araua betetzat emango lirarteke.”

### **BOSTGARREN PUNTUA** **2020 URTERAKO UDAL TASEN HOBARI ESKAERAREN AZTERKETA,** **HALA BADA**

Ikusirik 2020 urterako ura eta zabor tasen hobari eskaerak egiteko epea zabaldu zela otsailaren 1etik 29arte (biak barne).

Ikusirik, aipaturiko epean eskaera bakarra aurkeztu zela.

Ikusirik Gizarte langileak eginiko txostenetan dioena.

Ikusirik Idazkari-Kontuhartzaileak eginiko txostenean dioena.


Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.-C.G. andreari ur eta zabor tasetan % 100eko hobaria onestea.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri interesdunei jakinaraztea.

### **SEIGARREN PUNTUA** **LARRAULGO URBELTZ AUZOAN DAGOEN HAUR-PARKEAREN ZORUA** **ALDATZEKO KONTRATUAREN ESLEIPENA, HALA BADA**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik, Urbeltz auzoan dagoen haur-parkearen zorua altxatu egin dela, zoru berria jarri behar delarik.

Ikusirik, Larraulgo Udalak ez duela baliabide material eta pertsonalik aipaturiko lanak egiteko.

Ikusirik aipaturiko lanak egiteko lau enpresei gonbidapena bidali zitzaizela, euren aurrekontuak aurkezteko, konkretuki: Maderplay, Garra, Benito eta Fundibide enpresei.

Ikusirik, lau enpresa hauek euren aurrekontuak aurkeztu zituztela.

Udal Aholkulari teknikoak aurrekontuak aztertutik, MADERPLAY enpresarena egokiena zela jakinarazi zuen.

Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko kontratu legeko 118 artikulua arabera kontratu txiki baten aurrean gaude. Obra kontratu txiki baten aurrean.

### *Artículo 118. Expediente de contratación en contratos menores.*


*1. Se consideran contratos menores los contratos de valor estimado inferior a 40.000 euros, cuando se trate de contratos de obras, o a 15.000 euros, cuando se trate de contratos de suministro o de servicios, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 229 en relación con las obras, servicios y suministros centralizados en el ámbito estatal.*

*En los contratos menores la tramitación del expediente exigirá el informe del órgano de contratación motivando la necesidad del contrato. Asimismo se requerirá la aprobación del gasto y la incorporación al mismo de la factura correspondiente, que deberá reunir los requisitos que las normas de desarrollo de esta Ley establezcan.*

*2. En el contrato menor de obras, deberá añadirse, además, el presupuesto de las obras, sin perjuicio de que deba existir el correspondiente proyecto cuando normas específicas así lo requieran. Deberá igualmente solicitarse el informe de las oficinas o unidades de supervisión a que se refiere el artículo 235 cuando el trabajo afecte a la estabilidad, seguridad o estanqueidad de la obra.*

*3. En el expediente se justificará que no se está alterando el objeto del contrato para evitar la aplicación de las reglas generales de contratación, y que el contratista no ha suscrito más contratos menores que individual o conjuntamente superen la cifra que consta en el apartado primero de este artículo. El órgano de contratación comprobará el cumplimiento de dicha regla. Quedan excluidos los supuestos encuadrados en el artículo 168.a).2.º*

*4. Los contratos menores se publicarán en la forma prevista en el artículo 63.4.*



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Obra kontratu txiki bat bezala hartu behar da, 40.000 € azpitik dagoelako eta bestalde, Udaltzaren eskuduntza ere bada, gastua 3.000,00€ gora dagoelako.

Bestalde adierazi behar dugu kontratuaren xedea ez dugula aldatzen kontratazio administratiboko arau orokorrak edo prozedurak ekiditeko.

Gaia aztertutik, Udaltzaren honek, aho batez, ondorengoa

### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: MADERPLAY enpresari, Larraulgo Urbeltz auzoan dagoen haur-parkearen zoru berria jartzeko lanen kontratua esleitzea 17.799,10€ (BEZa kanpo), 1.0000.623.153.30.02 kontu sailaren kontura “Parkearen konponketa”.

BIGARRENA: Erabaki honen berri MADERPLAY enpresari ematea.

### **ZAZPIGARREN PUNTUA**

### **ERROITZ BALTZU MUGATUARI 2020 URTEARI DAGOKION EKARPENAREN KITAPENA ONESTEA, HALA BADA**

Ikusirik 2020 ekitaldirako Erroitz Baltzu mugatuak, aurkeztu duela “AIURRI, Beterri-Aiztondoko hamaboskaria”-k egitasmoaren aurrekontua, bertan, Larraulgo Udalarik dagokion ekarpena agertzen da, hau da, 750,00 eurotakoa ordainketa egitea eskatzen da.

Ikusirik Larraulgo Udalak, 2020 urteko aurrekontuetan, Erroitz Baltzu mugatuari Aiurri Beterri-Aiztondoko hamaboskaria argitaratzeko 750 eurotako partida bat aurreikusitua duela.


Gaia aztertutik bertaratuek aho batez ondorengoa,

### ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- “AIURRI, Beterri-Aiztondoko hamaboskaria”-ari 2020 ekitaldirako 750,00 eurotako diru-laguntza onartzea eta ordainketa burutu dadila agintzea. Urte bukaeran, Erroitz Baltzu mugatuak, dagokion kitapena aurkeztu beharko duelarik.

BIGARRENA.- 750,00 eurotako gastua onestea, 2020 urterako udal aurrekontuetako 422.334.00.01 partidaren kargura.

HIRUGARRENA.- Erroitz baltzu mugatuari erabaki honen berri ematea.



**LARRAULGO UDALA**

(GIPUZKOA)

### **ZORTZIGARREN PUNTUA**

### **LANKIDETZA HITZARMENAREN ONESPENA, LARRAULGO UDALA ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIEN DINAMIZAZIO ETA AHOLKULARITZA PARTEKATUTAKO LANAREN SUSTAPENERAKO**

Ikusirik Tolomendi Landa Garapen Elkarteak informazio eta komunikazio Teknologien inguruan aholkularitza eta dinamizazio zerbitzua partekatua sustatzen dutela, baliabideen erabilpen eraginkorrago batean laguntzeko eta udalak erakundeak IKT inguruan egunean egoteko.

Ikusirik Larraulgo Udalak interesa duela goian aipaturiko zerbitzu partekatua erabiltzeko. Horretarako dagokion hitzarmena prestatu delarik.

Gaia azterturik, Udaletxe honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo Udala eta Tolomendi Landa Garapen Elkartearen arteko lankidetzahitzarmena onestea, Tolosaldeko Udalerrien informazio eta Komunikazio Teknologien dinamizazio eta Aholkularitza partekatutako lanaren sustapenerako.

BIGARRENA: Alkate-Lehendakaria ahalmenu aipaturiko lankidetzahitzarmena sina dezan.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Tolomendi Landa Garapen Elkarteari ematea.

### **BEDERATZIGARREN PUNTUA** **BESTE BATZUK**

#### **9.1. BATZORDE INFORMATZAILEEN OSAKETAREN ALDAKETAK**


Ikusita, 2019ko uztailaren 4ean eginiko ez ohiko udalbatzarrean Kulturako batzorde informatzaileta eta Ogasuna eta Kontuetako batzorde berezia eratu zirela.

Ikusirik Aitor Beistegi Fiallegas zinegotziak azaldu duela pertsonal arrazoiak medio ezin izango duela aipaturiko bi batzorde hauetan egon.

Hau guztia ikusirik, eta Alkate andreak proposaturik, Udalbatzak, aho batez, ondoren aipatzen diren Batzorde hauen kide osaketa berria onesten du:

- Kulturako batzorde informatzailea:  
Jesus Maria Tejada Cantero, Maialen Alonso Labandibar eta Maite Arana Perez.  
Batzordeburua: Jesus Maria Tejada Cantero.





## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

- Ogasuna eta Kontuetako Batzorde Berezia:  
Maite Arana Perez, Jesus Maria Tejada Cantero eta Maialen Alonso Labandibar.  
Batzordeburu: Maite Arana Perez.

### **9.2. HERRIKO JAIK BERTAN BERA UZTEA**

Udalbatzak, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: COVIDE-19ak eragindako osasun krisia dela eta, Larraulgo udalak, jarri diren segurtasun neurriak ezin dituzenez bermatu, 2020 urtean ospatzekoak diren herriko jaiak bertan bera uzteko erabakia onesten du.

### **9.3. UDALEKUAK BERTAN BERA UZTEA**

Udalbatzak, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: COVIDE-19ak eragindako osasun krisia dela eta, Larraulgo udalak, jarri diren segurtasun neurriak ezin dituzenez bermatu, 2020 urtean ospatzekoak diren udalekuak bertan bera uzteko erabakia onesten du.

### **HAMARGARREN PUNTUA**

### **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkezten.

Beste gairik ez dagoenez, arratsaldeko 16:45 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, behin-behineko Idazkaria naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.